

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

GAIA

Domu Santu eta Arimen eguna /8

AISIALDIA

Erretiratuak Murtziatik gustura itzuli dira /9

LEINTZ GATZAGA

Lixiba edo pujeta erakusketa ferian /10



IVAN VAZ

**DISEINATZAILE ARETXABALETARRAREN
AURRENEKO MODA DESFILEA
GASTEIZEN**

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 01
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 02
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OROKORRAK**
- Almen 943 71 49 07
 - ARETXAGAZETA 943 79 86 21
 - Faxa 943 77 18 54
 - Basotxo 943 77 09 81
 - Euskaltegia 943 79 21 68
 - Gizarte laguntzaila 943 71 18 62
 - Hezibide elkarte 934 79 31 32
 - Industrialdea 943 79 62 80
 - Institutua 943 79 79 00
 - Kirol etxea 943 71 26 28
 - Kultura etxea 943 71 10 27
 - Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
 - Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
 - Liburutegia 943 71 18 62
 - Loramendi EE 943 77 09 70
 - Ludoteka 943 79 05 81
 - Mankomunitatea 943 79 30 90
 - Murruxo ME 943 79 93 74
 - Musika Eskola 943 79 36 50
 - Osasun etxea 943 79 74 58
 - Otalora 943 71 24 06
 - Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
 - Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
 - Postetxea 943 79 28 31
 - Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
 - Saretxo 943 71 26 56
 - Taxi geltokia 943 79 22 33
 - Udal Bulegoak 943 71 18 62
 - Udaltzaingoa 943 71 18 63
 - Urats Gain 943 79 99 11

UDALTAINGOA

Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIAK

- SOS Deiak 112
- Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
- Ertzaintza 943 79 71 99
- Gurutze Gorria 943 76 55 76
- Larrialdia 943 46 11 11
- Suhiltzailak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA

Domeketan: 11:00/12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:00

SANTA RITA

Domeketan: 09:00/10:00
Lanegunetan: 08:00

BASERRI AUZOETAN:

GORONAETAN

Domeketan: 11:30

MENDIOLA

Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GALARTZA

Domeketan: 12:30

OHARRAK

1980KOEN KINTO-AFARIA

Azaroaren 9an, 1980. urtean jaiotakoek kinto-afaria egingo dute Gurean. Interesatuok eman izena azaroaren 5a baino lehenago Arlutz tabernan. Izena ematerakoan sei euro ordaindu behar dira.

HITZALDIA: ETXEBIZITZA ARETXABALETAN

Javier Madrazok, Ezker Batuko koordinatzaile eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Ongizate Sozialerako Sailburuak, eta Javier Dean, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordeak, etxebizitza politikaren gaineko berbaldia egingo dute azaroaren 6an, udaletxean, 19:00etan.

ESKULAN IKASTAROA

Oraindik zabalik dago Kultura Sailak antolatutako Eskulan ikastaroan izena emateko epea. Informazio zabalagoa nahi izanez gero: 943 71 10 27.

ZURE OHAR ETA DEIALDIAK ARETXAGAZETA-N

Zure bizilagunei, lankideei edo aretxabaletarrei orokorrean ohar bat jakinarazi gura badiezu hemen duzu tarte egokia. Deitu edo bidali zure oharra:
Tel.: 943 79 86 21
aretxagazeta@goiena.com

LORAMENDIRENAGENDA

PAKETERIA IKASTAROA


Zortzi lagunek eman dute izena Paketeria ikastaroan. Hasiera baten, ikastaroa urriaren 30ean hastekoak ziren, baina azkenean atzeratu egingo da. Zehaztasun eta informazio gehiago gura baduzue, dei ezazue 943 77 09 70 telefonora.

Gainera, jakin ezazue oraindik ere izena eman dezakezuela Paketeria ikastaroan; hortaz animatuz gero, deitu.

ORAINDELA 5URTEARETXABALETAN

Udal Gobernu batzordetik bota zuten HB

Urriaren amaieran, ezezagun batzuek EAJko batzokia erre zuten. Ekintza horren ondorioz, partidu guztiek gaitzespena azaldu zuten herrian elkartutako komunikabideen aurrean. HBk ez zuen gaitzespenik egin, eta astebete geroago, Udal Gobernutik kanporatu zuten HB.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Eztegu"

Ezteiak. Ezkontza eta ondoko ospakizunak.
-Lehe, ezteguak iru egun irauten zeben.
Pluralean ia beti.




ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA
Garazi Muruamendi
5ean, 2 urte. Zorionak, etxeko partetik.



ARETXABALETA
Amaia Merino
30ean. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Jose Manuel Rosario
7an, 19 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.




ARETXABALETA
Iraia Aginagalde
28an, 22 urte. Zorionak, Haritzen eta lagun guztien partetik.



ARETXABALETA
Leire Elizondo
1ean, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.




ARETXABALETA
June Gastañaga
1ean, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.



ARETXABALETA
Floren Agirre
3an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Asier Zuazua
1ean, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Iago Zuazua
31n, 3an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ARETXAGAZETAren bidez!
Ekar itzazu haien argazkiak eta emaezu ezusteko ederra!
Doan!

LIBURUTEGIKOTXOKOA

'Krokodiloa ohe azpian'

Juan Jose pertsona arrunta da, bulego baten egiten du lan eta bakarrik bizi da. Egun baten konturatuko da krokodilo bat duela ohe azpian. Krokodiloak zapatak jaten ditu eta hark bakarrik ikus dezake. Juan Josek denetik probatuko du, baina medikua kemandako pilulek ere ez dute lor-tuko krokodiloa desagerraraztea. Hainbat korapiloren ondoren, bukaeran, era simple eta biribilean konponduko da dena.

Liburu honek Tolosako Udalak antolatutako Antonio Maria Labaien Narrazio Laburren Saria jaso du. Gazte zein helduek gustura irakurriko dute Mariasun Landaren liburu berri hau.



KROKODILOA OHE AZPIAN

Mariasun Landa
Alberdania,
2002
58 orrialde

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA



Taberna Berri jatetxea

Durana, 26
ARETXABALETA
Tel.943 79 20 67



FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56



ORAIN...
SOLARIUM BERTIKALA


KiXkur
ILEAPAINDEGIA

Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABALETA

TREBENTZIAEZPADA/ Domu Santu Egunerako lorarik erosten dozu? Garestixek izeten die?



MAITE PÉREZ
langillie




LORENTXO XABIER ZANGUITU
langillie




OLAIA ARRESE
langillie



ALEJANDRA SEBASTIÁN
jubilaue



EDUARDO ALTUBE
langillie



ALBERTO ARENAZA
langillie

oin arte ez dot erosi, baiñe urteren toketan jat. Egixe esan, ez dakit preziuek garestixek izeten dien edo ez. Hala eta be, badakit sasoi onetan loren preziuek igo egiten diela.

Urteren baten erosi neuen, baiñe oin dala asko, eta ez naz gogoratzen garestixek zien edo ez. Hala eta be, uste dot nahiko prezio normala eukitten dauela. Pena da agudo estropietan diela.

Bai, familixakuok danok batera erosten dittugu. Lorak banan-banan erosi eta geuk egiten dogu lorazentru. Bestela, oso garesti urtetan dau; egun honeittan gehixago, gaiñera.

Bai, zoritxarrez lora asko erosi biher izeten dittut. Urte batetik bestera ez dakit garestitzen dien edo ez, baiñe egun honeittan sekulako prezio garestixek eukitten dittue horreik lorok.

Bai, lora zentrotxo bat erosten dot urtero. Plastikozkuek ez die garestixek izeten, baiñe Domu Santu Egunerako danok naturalak erosten dittugu, eta horreik oso garestixek izeten die.

Ez. Ez dot sekula Domu Santu Egunerako lorarik erosi; hortan, ezin neike esan garestixek edo merkiek dien. Hala eta be, uste dot holako gauzak nahiko garestixek izeten diela.

TXALOKETATXISTUAK



TXISTUAK APARKALEKUAK, NON? Dagoeneko onartu dituzte datorren urterako udal zergak. Tartean, autoen gaineko zergak ere bai, jakina. Datorren urtean, garestiago izango da auto bat edukitzea, eta, horrez gainera, aurten baino gaitzagoa izango da autoa aparkatzea. Irtenbidea: zergetako dirua aparkalekuan inbertitzea. Orain, gainera, berandu baino lehen!. A.L.

ETA BARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

Eskola ibiltariak

Kurtzebarri Eskolako zenbait ikasle eta irakasle Katalunian eta Leonen izan dira bidaian.

ASTEAN BEHIN /05

Ivan Vaz, moda diseinatzailea

Ivan Vaz moda diseinatzaileak aurreneko moda desfilea egin zuten urriaren 17an, Gasteizen.

KIROLAK /06

Multikirolak hasi dira

Kurtzebarri Eskolako 105 gaztetxo eskolaz kanpoko kirolak edo Multikirolak egiten hasi dira.

ASTEKODATUA

22.719

EURO BALIO DU UDALTZAINEN AUTO BERRIAK

Opel etxeko Terrano autoa erosi du Udalak, 4x4 horietako bat. Hemendik aurrera auto hori udaltzainek edo Udaleko langileek erabiliko dute. Udaltzainen auto zaharra erretiratu egin dute.

BESTEKEESANA

“ Ez nuen saria espero. Egia esan, zeharo ahaztuta neukan nire nobela lehiaketan aurkeztuta neukala


ere. Horregatik, saria jaso nuela esateko deitu zidatenean zehar despistatuta nengoan. Espero ez nuen saria izan da.

Egia esan, nobela ez da kontatzen Bilbon kokatutako istorioa bat. Pantano bat daukan herri batean kokatuta dago. Izan daiteke Aretxabaleta... izan daiteke Durango... pasatzen dena da, Bilbo hiri moduan gertu dagoela eta nire kontakizunean behin eta berriz azaltzen den hiria dela, baina egia esan nobela bera ez dago Bilbon kokatua.

Nire nobela, azken finean, hiru gazteren kezka, beldur eta bizipenak kontatzen ditut.

ANDONI URZELAI
Arrasate Irratia/02-10-24

HERRITARRENBERBAK/ Felis Beltran de Heredia



Ezkerreko eskuarekin

Euskaldunen kontrako giroa sortu, suspertu eta zabaldu dute aspaldian Espainiako politikariek, hau da, PP eta PSOEko politikariek. Euren pentsaerik inolako zerikusirik izan ez arren bat egin dute uskaldunon kontra egiteko, sarritan taldekideek uste dutena kontuan hartu gabe.

Mingostutako giro horretan lehendakariak proposamena jaurti du, Madrilen inolako barreruririk sortu ez duen proposamena. Inkestek ordea, uskaldunen artean itxaropena sortu duela diote eta normalean inkestengan federik ez badut ere oraingoan kalean nabari dela itxaropen hori uste dut.

Politikari ez abertzale guztien ahotsak, ordea, ez datoz bat. Denis Itxaso da horietako bat, uskaldun sozialismoan sinisten duen gazte pasaiatarra. Euskal sozialistek egindako biltzarrean bere teoriak ez zutela harrera onik izan ikusita liburua idatzi du orain Gema

Zabaletarekin batera “Con mano izquierda”. Bertan, benetako euskal sozialismoa egiteko bidea azaltzen du, Madrilekoarengandik bereizita eta Euskal Herria defendatuko duena. Lehendakariaren proposamena entzun behintzat guztiek egin beharko luketela,

Elkarriren bake konferentziak balio izan duela eta Bataunaren ilegalizazioarekin ez datorrela bat ere esan ditu.

Pozgarria da Euskal Herriko herri batzuetan benetako euskal sozialistak geratzen direla ikustea. PPko

politikariak orain urte batzuk Euskal Herria suntsitu zuten berberak direla uste dut, baina kosta egiten zitzaidan PSOEkoak ere zaku berean zeudela sinistea asko ikurriñaren alboan faxisten kontra borrokan ibilitakoak baitira.

Telebistan agertzen den PSOEko ordezkari asko gorrotoz beteta dago, gure herriaren aurkako gorrotoz, ez ordea, guztiak. Zorte on, Denis, eta aurrera.

“Pozgarria da Euskal Herriko herri batzuetan benetako euskal sozialistak geratzen direla ikustea”



M. J. Aretxega

Igor, Inazio eta Ivan!

Aste honetan berri eskasak izan ditut. Herriko bake epai-leak, Igor Bastardok, lasterka ari zela makalaldia izan zuen eta, horren ondorioz, ospitalean izan zen. Orain, uste dut hobeto dagoela, baina hala ere, nire eta herritar askoren partetik besarkada handi bat bidali nahi nioke hemendik.

Bain Igor Bastardo ez da gaizki dagoen bakarra. Beste Igor bat, oraingoan Arenaza, futboleko min hartu eta herrian izan dugu azken egunotan. Seguru, amaren mimoekin segituan jarriko dela berriro ere Granadarako bidean. Aupa, Motri! Eta, bide batez, aupa, Real!

Eta azkenik, gure lagun Inazio Galdosen gainean hitz egingo diuzet. Aspaldi joan zen Inazio Indiarra, baina noizean behin senitarte-koak ikustera etortzen da Aretxabaletara. Oraingoan, baina, Euskal Herrian egon beharrean, Basterin izan da. Inaziok globalizazioaren gaineko nazioarteko kongresu batean hartu du parte. Inazio ezagututa, ez daukat dudarik gai horren inguruan berba bat baino gehiago esateko gizon aproposa dela.

Eta bukatzeko, jakinarren gainean zaudete Ivan Vaz izeneko diseinatzaileak daukagula herrian? Nik dagoeneko eskatu diot ezkontza jantzia egiteko diseinu bat.

ESKOLA IBILTARIA/ Kurtzebarri Eskolako 32 lagunek hartu dute parte programan

Eskola Ibiltariak programarekin bidaian izan dira Kurtzebarrikoak

AMAGOIA LASAGABASTER

Kurtzebarri Eskolako hogeita hamar gaztek sekula ahaztuko ez duten bidaia bat egin dute. Eskola Ibiltariak izeneko programarekin, Leonen eta Katalunian izan dira. Hainbat leku ezagutu, eta beste lurralde batzuetako lagunak egiteko aukera izan dute.

Aspalditik hartzen dute parte Kurtzebarri Eskolakoek Eusko Jaurlaritzak abian jarritako Eskola Ibiltariak izeneko programan. Ekimen horren helburua da EAeko zein Espainiako Estatuko gazteek beste lurralde batzuetako jende, ohitura eta kulturak ezagutzera. Horretarako, tokian tokiko hezkuntza administrazioak bidaia antolatzen dizkie ikasgela bateko ikasleei eta irakasle bati. Eta, horren ondorioz, Espainiako Estatuko eta EAeko zenbait eskolak bat egiten dute euren artean. Kurtzebarriko ikasleek kasuan, aurtan, Leon eta Katalunia ezagutzeko aukera izan zuten urriaren 8tik 15era egindako bidaian.

LEONERA ETA KATALUNIARA

Kataluniara Kurtzebarriko Joseba Burgoa irakasle ondarrutarra eta 15 ikasle joan ziren. Han, Avilatik eta Madriletik joandako eskolekin egin zuten bat. Leonen, berriz, Karnele Igartua



KURTZEBARRI ESKOLA


Gironako Val de Nurian izan ziren bisitan Kataluniara joandako ikasleak.

irakaslea eta haren ikasgelakoak izan ziren; Huescatik eta Albacetetik joandako eskoletako lagunekin egin zuten elkarbizitza.

ESPERIENTZIA BAIKORRA

Karnele Igartuaren eta Joseba Burgoaren esanetan, ikasleek ez

dute berehalakoan ahaztuko egin berri duten bidaia: "Lagunak egin eta gerora ere, harremanetan jarraitzen dute askok". Horrez gain, aipatu dute ikasleek elkarbizitzaren eta euren arteko arrotzak diren kulturen gaineko lezio ederrak jasotzen dituztela.



Aretxarte merkatari elkarteko bazkideek batzordekide berriak aukeratu zituzten

Aretxarte elkarteko zenbait merkatari 2002. urteari dagokion batzar orokorra egin zuten urriaren 23an. Batzarrean, besteak beste, datozen bi urteotan batzordea zein merkatari osatuko duten erabakitze zozketa egin zuten. Zozketa horren ondorioz, Aretxarte merkatari elkarte kanpo geratu dira Zubia Oinetakoak, Lasai Masajeak eta Miren&Zuriñe Bitxitegia. Batzordekide berriak, berriz, Txillarria, Iber eta Ibarra Estankokoak dira.

Batzarrean, gainera, Eusko Jaurlaritzako Merkatari Elkarte Laguntza Teknikorako Bulegoko teknikari Jorge Velázquezek berbaldia egin zuen. Hark merkatari elkarte baten kide izateak dakarren onurak azpimarratu zituen Aretxartekoiei. /A.L.

LABUR

Udaleko langileek zikinkeria handia jaso zuten Urkulun

Urriaren 21etik 25era bitartean, Udaleko langileak Urkuluko urtegi bide bazterretan garbitzen ibili ziren. Beste behin ere zabor-poltsa, kondoi, plastikozko pote eta paper ugari jaso zituzten Urkulun, zelai eta sasi arteetatik.

Ezohiko osoko bilkura egingo dute azaroaren 4an

Udalean udalbatzarrak onartu beharreko gai ugari pilatu dira azkenaldian. Hori dela eta, datorren astelehenean, azaroaren 4an, ezohiko osoko bilkura egingo dute. Besteak beste, etxabeak etxebizitza bihurtzeko ordenantza onartu beharko dute bilkuran.

Osasun etxeko telefono zenbakia aldatu egin dute

Duela aste batzuk, herriko osasun etxeko telefono zenbakia aldatu egin zuten. Horren ondorioz, hemendik aurrera, ambulatortara deitu gura baduzue, 943 71 19 59 zenbakia markatu beharko duzue. Telefono konpainiako zerbitzuek zenbaki berria iragarriko dute.



Herriko plaza z/g ARETXABALETA

Jauregi
Okindegia

Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

G U R E A

taberna
jatetxea

Durana kalea
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 20 64



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

IVAN VAZ/MODA DISEINATZAILEA

“Uste dut nik egindako diseinuak ez lituzkeela inork kalean erabiliko”

AMAGOIA LASAGABASTER

Ivan Vazek orain dela hamabost egun egin zuen lehenengo moda desfilea. Diseinu ikasketak egiten ari da Gasteizen. Ikasketetako lehenengo maila bakarrik egin du, baina dagoeneko erakutsi du aparteko gaitasuna duela.

Noiz eta zela sartu zinen moda diseinatzen?

Betidanik izan dut gustuko mairrazkiak egitea, eta modan zaletasun hori lan dezaket; hortaz, Gasteizen moda eskola bat zegoela esan zidatenean, ez nuen bi bider pentsatu eta izena eman nuen. Lehenengo ikasturtea egin dut dagoeneko, eta oso pozik nago. **Moda eskola baten zer ikasten da?**

Denetarik apur bat. Gehienbat, diseinuak egiten erakusten digute, baina modaren historia, oihalen gaineko xehetasunak eta josten ere ikasten dugu.

Zela egiten da diseinu bat?

Irudimen eta sormen handia behar izaten da. Zerbait irudikatzen dut, eta gero, ideia hori barnetik atera eta errealitate bihurtzen saiatzen naiz.

Zuk errealitate bihurtu dituzu zenbait ideia; ez da horrela?

Bai. Urriaren 17an, moda desfilea antolatu nuen beste hainbat ikaslerekin batera. Nik sei diseinu egin nituen.

Eta zela antolatzen da desfile bat?


Guk antzerkian oinarritutako ideia batekin jolas egin genuen. Nik, adibidez, *Mari Errauzkin* ipuineko pertsonaietan aurkitu nuen inspirazioa, eta horien arabera jantziak egin nituen. Horri jarraituz, bonbatxodun eta zimurututako alkandorak egin nituen, batez ere.

Zelako harrera izan zuten zuk egindako diseinuek?

Ez dakit; beharbada, gezurrik esango zizkidaten, baina jendeak esan zidan asko gustatu zitzaizkiola.

Zuk egindako jantziak kalean erabiltzekoak dira?

Ez; pentsatzen dut inor ez litzatekeela ausartuko.



“Diseinatzaile berriok jendearen arreta piztuko duen diseinua egin behar dugu”

Zergatik ?

Mozorro antzeko batzuk direlako. Ni bezalako diseinugile berriek jendearen arreta piztuko duen diseinua egin behar dugu. Ohiko jantziak eginez gero, inor ez litzateke ohartuko; guk egindako lan guztiak oharkabeen pasatuko liriateke. Horregatik egiten ditugu inork jantziko ez lituzkeen arropak. Guretako garrantzitsuena da desfile ostean, gaizki bada ere, jendeak gure gainean berba egitea.

Modan ez dago guztia asmatuta?

Beharbada, bai; gehienek bes-

“Dirudienez, jendeak geroago eta gehiago zaintzen du kanpoko itxura”

te norbaiten ideiak hartu eta horren egokitzapenak egiten dituzte.

Aretxabaletarrok zela jantzen gara?

Orain, askoz hobeto. Dirudienez, jendeak gero eta gehiago zaintzen du kanpoko itxura.

Moda kontuetan desberdintasunik badago nesken eta mutilen artean?

Bai, jakina. Mutilak beti kontserbadoreagoak dira.

Zeintzuk dira negurako jorak?

Praka bakeroak eta panazkoak ikusiko ditugu.

LABUR

laz baino ehun herritar gehiagok hartu dute gripearen aurkako txertoa aurten

Aurten egindako kanpainan 840 herritarrek hartu dute gripearen kontrako txertoa. Urte batetik bestera gora egiten du zenbaki horrek, eta aurten ere horrelaxe izan da. Laz, 743 lagunek hartu zuten txertoa, aurten baino ia 100 herritar gutxiagok. Dena dela, oraingo eguenera arte ez dute itxiko txertaketa epea; eta, ambulatorioko arduradunaren esanetan, oraindik ere azkeneko egunetan hurre-ratuko dira *despistatu* batzuk. Jende gehien kanpainaren hasieran joan zen osasun etxera; izan ere, lehenengo astean 236 txerto jarri zituzten, bigarren astean, 230 eta hirugarrenean, 138. Handik aurrera, jarritako txertoen kopuruak behera egin zuen.

Euskal Herriak jasaten dituen erasoen gainean berba egin zuten herri batzarrean

Urriaren 25ean (egubakoitza), herri batzarra egin zuten 25 herritar inguruk. Batzarrean, Euskal Herria azkenaldian jasaten ari den eskubide zibil eta politikoen zapalketaren gainean berba egin zuten, besteak beste. Batzarrearen helburua, hain justu, horixe zen: herritarrek jabearaztea gaur egun euskaldunek bizi duten egoera sozio-politiko oso latza dela. Horren haritik, herri batzarra antolatu zutenek hainbat arlotan lan egingo duten taldeak antolatu gura dituzte. Horretarako, datozen egunotan batzar gehiago egiteko deialdiak egingo dituzte. Era berean, herritar guztiak batzar horietan parte hartzeko eskaera egin gura izan dute.

TXUTXUMUTXUA



Kike Amonarriz Kurtzebarri Eskolan izan zen

Urriaren 29an, Kike Amonarrizek berbaldia egin zuen Kurtzebarri Eskolako DBHko 143 ikasleendako. Kurtzebarriko Euskara batzordeak gonbidatuta etorri zen Kike, eta, batez ere, gazteek gaur egun erabiltzen duten euskara *modernoren* gainean berba egin zuen. Betiko umore onarekin, Kikek azpimarratu zuen ordenagailu bidezko *txateoarekin* eta poltsiko-telefonoarekin idazten diren gutunekin euskarak azken lau urteotan izan duen aldaketa izugarria izan dela. /A. L.



EZKUTU
TABERNA

ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte, 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28

AMETS
TABERNA

Iparagirre, 4
Tel.: 943 79 01 29
ARETXABALETA

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.
Mitarte, 23
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33



Multikiroleko entrenamendu saio guztiak kirol etxean egiten dituzte Kurtzebarri Eskolako neska-mutilek.

MULTIKIROLA

Ehun gaztetzok baino gehiagok hartuko dute parte Multikiroletan

Azaroaren bederatzian jokatuko dituzte Multikiroletako txapelketan lehenengo partiduak

AMAGOIA LASAGABASTER

Azaroaren 9an hasiko dira Multikiroletako norgehiagokak. Dagoeneko, baina, hasiak dira herriko neska-mutirik entrenamendu lanetan. Aurten, Kurtzebarri Eskolako 105 ikaslek hartu dute parte eskola orduetatik kanpo egiten den kirol jarduera horretan.

Orain dela lau urte sortu zen Multikiroletarako edo eskola orduetatik kanpo egiten diren kirol jardueretarako batzordea. Talde horretan udal ordezkari bat eta Eskoriatza eta Aretxabaletako guraso elkarteko hainbat kide batzen dira. Horiek guztiak koordinatzen, berriz, Aretxabaletako kasuan, Nagore Eraña dabil.

Aurten, 105 neska-mutirik eman dute izena Multikiroletan. Horiek guztiak hainbat mailatan

sailkatu dituzte: aurrebenjaminak, benjaminak, alebinak eta infantilak daude. Entrenatzaileei dagokienez, bederatzi lagun ari dira aurten.

KIROLA EGITEKO AUKERA ZABALA

Aurten ere Multikirol jardunaldietako kirol eskaintza handia da. Txapelketak egiteko gertatuko dituzten kirolen artean, areto futbola, saskibaloia, eskubaloia eta zazpinako futbola daude. Horien guztien artean, gazte talde bakoitzak gura duen kirola aukeratu du. Hori bai, bost jardunaldiren ondoren txandatu eta beste kirol bat egin beharko dute. Horrela, gazte bakoitzak kirol bat baino gehiago egin ahal izango du denboraldian.

Bestalde, Multikirolen barruan, lehiaketa sailetik kanpo gelditzen diren kirolak ere egingo dituzte: igeriketa, eskala-

da, mendira txangoak eta izotz gaineko patinajea izango dira, besteak beste neska-mutil guztien-dako aukeran.

Eta gaztetxoendako egokitutako kirola eta psikomotrizitate eskolak ere emango dituzte.

Multikiroletako txapelketak azaroaren 9an hasi eta maiatzean amaituko dira. Zapatuero izango dira partiduak. Aste barruan, berriz, gutxienez, bi entrenamendu saio egingo dituzte.

DIRULAGUNTZAK

Multikirolak Foru Aldundiak eta herri bakoitzeko udalak emandako laguntzari esker egiten dira. Horrez gainera, ikasle guztiak kuota txiki bat ordaintzen dute. Diru horrekin batzordekoek, batez ere, koordinatzaileak eta entrenatzaile guztiak egiten dute lana eta irteeretako gastuak ordaintzen dituzte.

FUTBOLA

Denboraldiko bigarren garaipena lortu zuten UDAko preferente mailakoek

Bittor Muxikaren taldeak denboraldiko bigarren garaipena lortu zuen joan den domekan Hernaniren aurka jokaturako partiduan. Indar handiarekin irten ziren UDAkoak zelaira, eta 20. minuturako Erik Garciak egina zuen partiduko gol bakarra. Oraingo zapatuan, Anaitasuna taldea izango dute aurrez aurre, Azkoitin 16:00etan. Anaitasuna bosgarren dago sailkapenean.

FUTBOLA

Igor Arenazak orkatila baten zaintiratua izan zuen, eta hilabete eta erdi gelditu egon da

Hilabete eta erdi inguru egon da Igor Arenaza futboleko jokatu barik. Denboraldiko hirugarren partiduan zaintiratua egin zuen orkatila baten. Hasieran, zerbait larriagoa zelakoan, hainbat mediku bisitatu zituen. Azkenean, baina, zaintiratu txiki bat bakarrik izan dela argitu diote medikuek. Igor Arenaza Granadako Motril taldean ari da jokatzeko.

KROSA

Behobia-Donostia herri lasterketara joateko autobusa antolatu dute

Urtero moduan, herritar koadrila batek Behobia-Donostia lasterketara joateko autobus txiki bat antolatu du. Autobusean 19 lagun joan daitezke. Batzuek dagoeneko eman dute izena, baina oraindik lekua dago dozena bat herritarrendako. Lasterketa egin ostean, gainera, autobus horretan joango diren guztiak Zarautz aldean egingo dute bazkaria.

KIROL ETXEA

Gimnasia egiteko saio pertsonalizatuak antolatu dituzte kirol etxean

Kirol etxeko gimnasia eta muskulazio gelan beste zerbitzu bat eskainiko dute azarotik aurrera: Aholkularitza Zerbitzua, hain zuzen ere. Zerbitzu horretan, besteak beste, gimnasioaren erabilpenarako oinarriko ikastaroak eta gimnasia saio pertsonalizatuak eskainiko dituzte. Zerbitzu biak doan emango dituzte, baina interesatuok aldeztatik izena eman beharko duzue kirol etxean.

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

UDA-Eibartarrak
Bigarren mailako gazteak.
Zapatua. 15:30. Pasaia.
UDA-Hondarribia
Gazteak (ohorezko liga).
Zapatua. 17:30. Ibarra.

PILOTA

Altza.(2)-Aretxab. (2)
Seniorrak.
Egubakoitza. Altzan.
Usur.(2)-Aretxab. (1)
Nagusiak.
Zapatua. Usurbil

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 1 Hernani 2
Preferentea.
Ikasberri 2 UDA 4
Gazteen Euskal Liga.
Moriño 2 UDA 2
Bigarren mailako erregionala.
Bergara 1 UDA(b) 2
Bigarren mailako gazteak.
UDAn(c) 3 Aurrera 0
Bigarren mailako gazteak.
Aitzgorri 4 (b) 0 UDA 2
Lehenengo mailako kadeteak.

PILOTA

Aretxab. 9 Itxasondo 22
Bigarren mailako gazteak.
Añorga 22 Aretxab. 16
Lehenengo mailako gazteak.
Aretxab. 22 Behar-Zana 9
Nagusiak.
Aretxab. 22 Añorga 26
Nagusiak.

Esko Sport

Zure konfiantzako denda

Intxaurtxueta 5, Eskoriatza. 943 71 52 96
LARUNBAT ARRATSALDEZ IREKITA



ZARAIA TABERNA

**BERRITZE-
LANENGATIK ITXITA**

zure zerbitzuan
Tel.: 943 79 88 95
MANTEKA ANAIK

OSKAR GARAJEA

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4
ARETXABALETA

MUNDUTARRAKARETXABALETAN

MARI CARMEN GUTIÉRREZ
BILBOTARRA

“Hasieran erraza izan ez bazen ere, nire lekua aurkitu dut Aretxabaletan”

AINTZANE GARDOKI

Mari Carmen bilbotar-bilbotarra da, Iturribide kalekoa. 23 urte zituela Aretxabaletara etorri zen, senarrarekin batera: “Ez dut une hura inoiz ahaztuko; Burgosko prozesua gori-gorian zegoen. Zer gertatuko ote zen beldur ginen. Bergaran manifestazio ugari izan zen garai hartan”, adierazi digu Mari Carmenek.

Nora zetozen ere ez zekitela heldu ziren Debagoienara: “Bizi izateko herri txikia eta lasaia gura genuen senarrak eta biok. Eskoriatza eta Aretxabaleta ikusi genituen, eta Aretxabaletan gelditzea erabaki genuen. Bilbon harreman handia geneukan bizilagun eta ingurukoekin; Aretxabaletan ere gauza bera edukiko nuelakoen nengoen, baina ez pentsa, asko kostatu zait hemen nire lekua aurkitzea”, gaineratu du Mari Carmenek. Lehenengo bost urtetan ez zuen etxetik kanpora lanik egin: “Eta oso gogorra izan zen. Kanpotik datorrenari bertakoak egin beharko lioke harrera, ezta? Inork ez dezala gaizki hartu, baina aretxabaletarra zentzu horretan nahiko itxia dela pentsatzen dut. Garai gaitzak

izan ziren niretzako. Loramendi Ikastolan lanean hasi nintzen, eta hark lagundu zidan apur bat. Arnasa eman zidan. Baina denbora pasatu den neurrian, nire lekua aur-

“Bilbok daukan aniztasuna dut gogoko: era askotako jendea, aukera zabala...”

kitu dut Aretxabaletan”. Gustura bizi da Aretxabaletan, eta aretxabaletar peto-petoak diren hiru seme-alaba ditu etxean: “Gure seme-alaben herri da Aretxabaleta, baina nirea ere bada, e!”, gehitu du. Baina ez ditu Bilboko lagunak eta Bilbo bera ahaztu. Ahal duen guztietan joaten da Bilbora: “Hemen lagun onak egin ditut, eta Bilboko lagunak ez ditut inoiz galdu. Bestetik, Bilbok daukan aniztasuna dut gogoko: era askotako jendea, gura duzuna egiteko aukera zabala... Azken batean Bilbo bera dut gustuko”, esan digu Mari Carmenek.



HURRETIK



Jose Ramon Elkoro

Perkusiño jolietan eta musika irakasle

Musikaren inguruan mobiduten da Jose Ramon Elkoroen bizimodue. Egun baten, gaiñera, musikie lanbide izeteko erabakixe hartu euen. Hola, Musikako oposiziñuek egin zittuen.

Musikako funtzionari xue zara, ezta? Bai. Oin dala lau urte, Gasteizeko Udal Bandan sartu nitzen. Fan dan urtinen, barriz, oposiziñuek egin zien plaza batzuk beteteko, eta ordutik hona funtzionari xue naz.

Eta zein da musikako funtzionari xue baten lana?

Guk, beste danen moduen, ordu batzuetako lanaren truke kobretan dogu. Astien zihar lau egunien ensaiuek eukitten dittugu, eta gero, asteburuero kontzertu bat emuten dogu.

Asteburuero bat, zela da posible?

Askotan kontzertu pedagogikuek emuten dittugulako; eskoletan eta holako lekuetan.

Lan bat baiño gehixago egiten dittuzu, ezta?

Bai. Arrasate Musikalen irakasle lanak egiten dittut.

Eta ze gurago, instrumentue jotie ala joten erakustie?

Bata bestiaren osagarri xue da. Bixek asko gustetan jat, eta ezin neike bat elegidu. Gasteizeko Udal Bandak UDAko himnue jo dau azkenaldixen. Zela, ba?

Itxura danez, UDAko partiduetan jarten euen himnue raiauta euen, eta barrixe grabau biher zan; hortan, neure zuzendarixari pieza hori joteko proposamena egin nutzen, eta hola suertau zan dana. Ze da zuretako musikie?

Oso gauza inportantie; bizi izeteko modu bat.

Musika gogoko bat?

Danetik entzuten dot. Bat elegidutekotan, jazz.

A.L.

NIREBIDAIAHURA/ Irma Arabaolaza

Thailandia / 2002ko urria

Irmak “Aupa edo Sa Wat dee” esan digu Thaiñandiako hegoaldeko Koh Pangnan uharte txikitik. Irmak agindu zigun legez, datozen zazpi hilabeteotan munduan zehar egingo duen bidaiaren berri emango digu. Lehenengo hitzordura puntu-puntu heldu zaigu.

Urriaren 14an hartu zuten Bilbotik Dublinerako abioia Irmak eta Luisak, bidaiak lagun izango duen Asturiasko lagunak: “Londresera joan ginen gero, eta Londrestik Bangkokera, izugarriko abioi handi baten, beste 400 lagunekin batera”, esan digu Irmak. Bangkok-en ez zuten denbora luzerik egin: “Bero itzelak eta usain txarrak ongi torria eman ziguten. Hiri itzela da: zirkulazioa, kutsadura, diru tratua alde guztietan... Hori bai, janari zoragarria ere badaukate, e! Iparraldean Thaiñandiako sukaldaritzaren gaineko ikastaroa egiteko asmoa daukagu”. Thaiñandian hain entzutetsuak diren masajeak ere probatu dituzte dagoeneko: “Bangkoketako tenplu budista zaharrena ikustera joan ginen, eta hantxe bertan masaje ederra ere hartu genuen. Aukera izanez gero, merezi du; primeran geratzen dira gorputza eta burua”.

Hurrengo egunean, denborarik galdu barik, autobusa hartu eta Koh Tao uhartera abiatu ziren: “Han, sei egunez, eguzkia hartu, ondo jan eta uharte bisitatu dugu. Snorkelling ere egin genuen, hau da, ur azpian igeri egitea. Izugarri polita da ur azpian gordetzen den kolore-mundua”, dio Irmak. Neska txiki bati esker, thailandiera ikasten ere hasi dira: “Kai-xo, eskerrik asko, agur... erabiltzen ditugu dagoeneko. A, eta hemen ere Asereje abestia alde guztietan dugu lagun”. Laster, Koh Pangnan uharte utzi eta, trekking bat egiteko asmoz, iparraldera joango dira Irma eta Luisa. Handik ere kontatuko dizkigute kontatzekoak direnak.

AINTZANE GARDOKI



Koh Pangnan uhartetik Thaiñandiako iparraldera abiatuko dira.



“Hiri izugarria da Bangkok: zirkulazioa, kutsadura...”
“Oso polita da ur azpian gordetzen den kolore-mundua”

URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 943 79 79 79
ARETXABALETA

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Iber

★ Loteria ★
✿ Paperdenda ✿
* Liburuak *

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943.79.04.39

Maritxu
drogeria
mertzzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETA

Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Eguena / 2002ko urriaren 31 / 99. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Domu Santu Eguna eta Arimen Eguna, nor bere nortasunari eutsi guran

AINTZANE GARDOKI

Domu Santu Eguna –santu guztien eguna– eta Arimen edo Hildakoen Eguna azkeneko urteotan gizarteak uztartu egin dituen jaieguna dira. Kristau katolikoek antzinatik ospatzen dituzte bai bata bai bestea. Bihar, ehunka lagun joango dira kanposantura.

Eskoriatzako parroko Xabier Gómezek azaldu digunez, Eliza katolikoa joan den aspaldian aha-lerin berezia egiten ari da Domu Santu Egunak eta Arimen Egunak, nork bere nortasuna berreskuratzeke: “Domu Santua santu guztien eguna da. Aldareetan ez dauden santu eta izenik gabeko kristau on guztien eguna; justiziaren eta bakearen alde bizitza eman dutenen aldeko oroimen eguna da. Etzi, berriz, Hildakoen Eguna da. Azaroaren 1a jaieguna izatean, azkeneko urteotan bi egunak bakarrean uztartu dira”, esan digu.

ARGIZARIA ETA OGIA

“Biharko liturgiak, etzikoarekin alderatuta, ez dauka zerikusirik; oso alaia da, abadeok ere zuriz janzten gara. Etzi, domeka, aldiz,



Apotzagako kanposantua da inguruko artean bisitatuena.

morea, heriotzaren kolorea darماغu soinean”, jarraitu du Xabierrek. “Baina ez da goibel eta triste egoteko eguna, ez horixe! Itxaropenerako egun handia da

Arimen Eguna”. Lehen, argizaria eta ogia jartzen zitzairen hildakoei; hildakoei lotura estua adierazten zuen horrek. “Orain, loreak eta argia eramaten dizkiegu hil-

dakoei: bizitzaren ezaugarriak dira, kanposantura goazenean jakin dezagun berpiztearen adierazgarriak eramaten dizkiegula hildakoei”, amaitu du Xabierrek.

“Bihar, santu guztien eguna da, aldareetan ez dauden santu eta kristau onen eguna”

“Biharko liturgiak ez du zerikusirik etziko liturgiarekin. Biharkoa askoz alaiagoa da”

“Lehen, ogia eta argizaria eramaten zitzairen hildakoei; orain, berriz, loreak eta argia”

ATREBENTZIAEZPADA/ Domu Santuan kanposantura joateko ohiturarik baduzu?



MARI SANABRIA
langilea

Senarra hil zaidanetik, zapatuero joaten naiz kanposantura. Askotan, tristura ematen dit kanposantua zelan egoten den ikusteak. Urtean egun bakarra ez da nahikoa...




ALONSO GALLEGO
erretiratua

Egia esan behar badut, Domu Santu Egunez bakarrik joaten naiz kanposantura; aita zenari lore sorta eramaten diogu arre-bak eta biok. Bestela, ez dut joateko ohiturarik.



IDOIA GÓMEZ
langilea

Hipokresiaz betetako eguna da, nire ustez. Urte osoan kanposantura joan ez, eta biharko egunez zeinek lora ederragoak eramaten dituen begira egongo gara herritarrok, ezta? Ez, ba!



RAFAEL RASO
erretiratua

Lehen, gutxiago joaten nintzen, baina semea hil zitzaigun duela hiru urte, eta orain, sarritan joaten naiz. Andaluzian hemen baino sarriago joaten da jendea kanposantura.



BEGO JAUREGIZAR
langilea

Bihar, horma-hilobiak lorez gainezka egongo dira, merkatu txikia izango balitz bezala; eta gero? Hori ez zait gustatzen. Orain, gutxiago bada ere, urtean ere joaten naiz.

LABUR

Ia seiehun herritarrek hartu dute txertoa

Amaitu da gripearen kontrako txertoa hartzeko kanpaina. 567 eskoriatzarrek hartu dute aurtengo txertoa; 65 urtetik gorako 467 herritarrek hartu dute txertoa. Diabetiko, biriketako, giltzurruneko, bihotzeko eta gibeledoko gaixotasunak dituzten beste ehun lagunek ere hartu dute txertoa Osasun Etxeko langileek, Osasun Etxean bertan ipini dituzte txertorik gehienak, baina auzoz auzo, eta behar izanez gero, etxez etxe ere ibili dira txertoak jartzen.

LABUR

Museo Eskola domeketan ere zabalik egongo da

Eskoriatzako Museo Eskola joan den urriaren 26a ezkerre domeketan ere zabalik egongo da museoa bisitatu nahi duten guztiendako. Domeketan, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara egongo da museoa zabalik. Eta zapatuetan, orain artean moduan, itxita egongo da. Aste barruan, berriz, eskoletako ikasleak egoten badira ere, 943 71 54 53 zenbakira deituta museoa ikusi gura dutenek izango dute aukera; arduradunek bisitaldi gidatuak egingo dituzte.

Zinpekogaiek ez dute alegaziorik jarri Udalean

E. Diezi, J.C. Kortazarri eta L. Ramosi egokitu zitzaizkien irailaren 26an Donostiako Auzitegi Probintzian jendaurreko zozketan epaimahairako zinpekogai izatea. Urriaren bigarren hamabostaldian udaletxeko ohar-taulan egon da zerrenda ikusgai. Epe horretan hiru zinpekogaiek ez dute inolako alegaziorik egin, Udalean, behintzat. Udalak, epea bukatuta, bere partidu judizialeko epaile dekanuari igorri dio zerrenda. Datozen bi urteotan izango dira zinpekogai.

Eskoriatza Herria Ikerketa Bekarako lagun bakarra

1630az geroztik herriak izan dituen udaletxeen historia egiteko asmoz Udalak kaleratu zuen Eskoriatza Herria Ikerketa Bekan parte hartzeko epea amaitu da dagoeneko. Eta Aitor Pagaldai historialari eskoriatzarrak bakarrik eman du izena. Udalak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu Aitor Pagaldai, eta egun gutxiren buruan erabakiko du horretarako osatu den batzordeak Aitorri emango dion lan hori egiteko ardura.

AISIALDIA

Oso gustura etorri dira Olazar elkarteko lagunak Murtziara egindako bidaiatik

AINTZANE GARDOKI

Baina ez zuten bidaia oso ondo hasi, ez! Erretiratuak 06:00etan ziren Murtziara joateko autobusa hartzekoak, baina gidariak lo hartu zuela-eta, bi ordu eta erdi berandu irten ziren. Istripua ere izan zen bidean, eta zain egon behar izan zuten luzaroan. Eta, gainera, Murtziara heldu aurretik autobusak zulaketa izan zuen. "Dena dela, bestela, ez dugu inolako arazorik eduki", esan digu Olazar elkarteko batzordekide Mari Carmen Erañak. "Hotela handia eta ederra izan dugu; termak, igerileku klimatizatua, gela handiak, gauero dantzaldia... jatekoak ere oso onak eman dizkigute, eta eguraldia primerakoa izan dugu. Egin ditugun txangoak eta bisitatu ditugunak politak izan dira. Ezin hobeto pasatu dugu, eta pozik itzuli gara", gehitu du Mari Carmen Erañak.



Olazarreko batzordekideek bidaiaren balorazio oso ona egin dute

A.G.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea.....	943 71 44 07
Udal bulegoak.....	943 71 45 32
Udaltzaingoa.....	943 71 44 07
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Kultura etxea.....	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea.....	943 71 31 36
Kirol etxea.....	943 71 53 28
Liburutegia.....	943 71 31 35
Luis Ezeiza.....	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola.....	943 71 44 86
Almen.....	943 71 49 07
Museo Eskola.....	943 71 54 53
Axtroki.....	943 71 40 77
HUHEZI.....	943 71 41 57
Osakidetza.....	943 71 44 52
Telesko.....	943 71 49 17
Taxiak.....	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate).....	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara).....	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate).....	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati).....	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga).....	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz).....	945 23 20 30
PESA (Arrasate).....	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate).....	943 77 10 43
SOS Deiak.....	112

OHARRAK

PERRETXIKO LEHIAKETA
Luis Ezeiza Herri Eskolak antolatuta, bihar, zapatua, perretxikotara joateko irteera egingo dute, 09:30ean. Batutako perretxikoak 13:00etatik 14:00etara jasoko dituzte, Gorosarri plazan; domeka eguerdian, erakusketa egingo dute, Gorosarri plazan bertan.

PALESTINAREN GAINEKO DIAPOSITIBA EMANALDIA ETA BERBALDIA
Martitzenean, azaroaren 5ean, Amaia Arrizabalagak Palestinaren gaineko diapositiba emanaldia eta berbaldia egingo ditu, kultura etxean, 19:00etan.

AXTROKIRENAGENDA

GRAFOLOGIA IKASTAROA
Astean amaitu da Iruene Ibarra grafologoak eman duen ikastaroa. Zortzi herri-tarrek hartu dute parte, eta balorazio oso ona egin dute ikasitakoaz. Jende gehiago espero zuen Axtrokik.

TXUTXUMUTXUA



Donostian eta Zumaian egun pasa

Urriaren 12an, Donostiara joan ziren, lehenengo, eta Zumaia-ara, ondoren, herriko gaixo psikiko eta fisikoak. Zortzi gaixok, lau laguntzailerekin batera, egun polita pasatu zuten etxetik kanpo. Txutxu-treñean Donostia bisitatu zuten. Alderdi Ederreko zaldiko-maldikoa ez zuten ibiltzerik izan, autobusa etorri zitzaielako; hurrengo bueltatzeko aitzakia bikaina badute. Zumaian Azkoitiko lagunekin batu, eta elkarrekin bazkaldu zuten. Gero, osteratxoan egin zuten Zumaian, eta iluntzean itzuli ziren etxera, pozik. Gabonetan zaldiko-maldikoa ibiltzera joango ei dira Donostiara. /A.G.


ESTETIKAN ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA



EDURNE

Aranburuzabala, 42
Tel.: 943 71 51 54
ESKORIATZA

ESKORIATZA



Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

PAGALDAI
HARATEGIA-URDAITEGIA

Gaztainadui, 15
Tel.: 943 71 51 97
ESKORIATZA

San Millan feria badatorrela-eta, prestaketa lanetan buru-belarri

AINTZANE GARDOKI

Azaroaren 10ean izango da Gatzagan X. Langintzen Ferixa. Euskal Herriko 15 artisau izango dira herrian, 10:30ean hasi eta 20:00ak bitartean euren lanak erakusten. Artisauren lanak ikusteaz batera, aurten, herriko emakumeek lixiba egingo dute.

Ohitura zaharrak suspertu guran, ahalegin berezia egiten ari da Gatzagako herria azkeneko urteotan; orain dela urte bi, txondorra egin zuten, iaz, berriz, irametak zelan egiten diren erakutsi zieten feriara hurreratutako. Aurten, Sorginak taldeak antzina arropa zuritzeko lixiba

edo pujeta zelan egiten zuten erakutsiko dute: "Lixiba egiteko prozesua ez da erraza, baina ahaleginduko gara. Iaztik daukagu hori buruan, eta, esan bezala, ahalegindu, behintzat, ahaleginduko gara", esan digute Sorginak taldekoek. "Ura, sutako hautsa, lixiba-harria, lixiba-aska, garoa eta erramu hostoak behar dira, besteak beste, lixiba edo pujeta egi-

teko. Garo gainean arropa zuria jartzen da, ura ondo hartzeko eran. Gaietik haus-trapua jartzen zaio eta horren gainean, sutako hautsa. Hauts horrek garbitu eta zuritzen du arropa. Hautsari, erramu hostoak ere gehitzen zaizkio, arropari usain goxoa emateko", azaldu digu taldeko kide batek. Erakustaldia iturrian edo udaletxe ondoko parkean egingo duten ez dute erabaki taldekideek. Lotu beharrekoak lotzeko batzar bat baino gehiago egingo dute. Dena dela, urtero moduan, Sorginak taldeak talak egin eta salduko ditu ferian bertan. Bizpahiru egun lehenago, dagoeneko ospea hartu duten buzkantza goxoak egiteko asmoa ere badute herriko emakumeek.

"Lixiba egiteko prozesua ez da erraza, baina ahaleginduko gara"



Iaz, gazteek, danbolinari eragin eta eragin, gatzainak erre zituzten.



Alila eta Galia sahararrek agur esan diete herritarrei

Sahararen gaineko berbaldia egin zuten Gatz Fabrikan duela hilabete bi gurera etorri ziren sahararrek. Herritar ugari hurreratu ziren 27 urteotan Marokoren mende bizi den herriaren gaineko entzuteko. Dokumentala ere eskaini zuten. Ondoren, *couscousa* prestatu eta giro politean afaldu zuten herritarrekin elkartean. Agur esan diete Gatzagari, baina bisitan etorriko ei dira. Zorte on!/A.G.

LABUR

Kanpandorreko erlojua konpondu dute eta kanpaiak orduak jotzen dituzte berriro

Aspaldiko partez herrian kanpai hotsak entzuten hasi dira berriro. Luzaroan erlojua apurtuta egon delako kanpaiak ere isilik egon dira. Ez dago inguruan horrelako lanetan aritzen den enpresa askorik; Donostiako Tecni Cronos enpresa ei da espainiar estatuko iparraldean dagoen bakarrenetarikoa. Donostiako hainbat teknikari ibili dira erlojua konpontzeko lanetan; erlojua eta kanpaiak orduetan eta erdietan jotzeko automatizatu dituzte. Erlojuak ordua irratiz hartzen du, eta horretarako beharrezkoa den antena ere jarri dute. Goizeko zazpietatik gaueko hamaikak bitartean jotzen dute kanpaiak. Dena dela, kanpaien hotsa ez ei da guztiz aproposa eta hori zuzenduko dute datozen egunetan. 6.000 euroko aurrekontua izan dute lanok.

Domu Santuan, meza nagusiaren ondoren, Pater Norterra esango dute kanposantuan

Arimen Egunean meza esateko ohitura aspaldi galdu zen Gatzagan. Domu Santu Egunak hartu du geroztik jai bien pisua. Bihar, zapatua, Martin Mendizabalek meza esango du, 12:30ean, San Millan parrokiaren. Mezaren ostean, Mendizabal kanposantura abiatuko da, eta han, hildako guztien alde Pater Norterra errezatuko du.

Kanposantua duela gutxi berrizatu dute, gainera: kapila guztiz konpondu dute, kanposantuko hormak pikatu eta zuriz margotu dituzte, eta kaleargi berriak ere oraintsu jarri dituzte kanposanturako bidean. Astean, herritarrek familiakoen hilobiak garbitu eta txukundu dituzte. Beste herrietan moduan, urte osoan izaten ez duen kolorez gainezka dago Gatzagako kanposantua.

OTZETA

TABERNA • JATETXEA

- Eguneko menua
- Palter konbinatuak
- Bokadiluak
- Pintxuak



Aranburuzabala 7. Tel.: 943 71 51 90 ESKORIATZA



Aranburuzabala, 22 behea
ESKORIATZA
Tfnoa.: 943 71 51 20

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

LENIZ
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



**HORMA-
ARMAIRU**
AUKERA
ZABALA

Eta mota
guztietako
ateak.
Informa zaitetz!



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objektuen pintaketa




AZKARATE
AROSZTEGIA

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 01 24

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



Gemes
edertze aretoa

Durana 40 ARETXABALETA
943 79 99 18

Depilazio elektrikoa: patilak, bigotea, okotza • Depilazioa: argizari beroa eta hotza • Dekolorazioa • Behin betirako makilajea bekain eta ezpainetan
Eguneko makilajea: ezkontzak, ezkongaiak... • Azalaren garbiketa osoa: adinaren eta zimurren aurkakoa, hidratazioa, aknea, shock (lifting-a).
Ordezko azazkalak, natural-naturalak manikura eta aplikazioa • Pedikura • Dieta pertsonalizatuak • Betileen tindaketa • Solarium zerbitzua ere badaukagu



Eguneko
menua

Maulanda *jatetxea*



MAULANDA JATETXEA

Maulanda Auzoa, 20540 Eskoriatza
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56